



Teresatxoren zabaltasuna.—Umetxoak, gaztetan, berez dira zabalak; eta onen maitagarri auxe dala-ta egiten yakuz, zabal-zintzotasunak berezko erakarpenak ditu-ta. Urtietan auferatuaz, ostera, umetxo batzuk beste batzuk baño zabalagoak.

Gure Terese kaskañaren zabaltasuna ariñaria zan. Noz edo bein, bere jolas-lagunagaz—lagunik onena ta iñoz itxi gura ezebana Keliñe eban—zeozergaitik asarñatuta alkañi zapladan bat emon edo olgetan ebilzela aizteari saka edo egin ba-utson, ariñeketan amagana eldu ta onetariko autorkuntzak egin oi eutsozan: *Ama, baten Keliñe'ri sakaka egin dautsat; beste baten jo egin dot, baña ezot olakorik bañiro egingo.*

Bein etxe bañuan olgetan ebilela, ustekabean, ormako ingi edo paper-ataltxoak uratu eban. Atsekabe mingotsaren eztenak biotza batetik bestera igaro dautsonaren antzera negañari emon eutson eta etxeako gustiak erukiz ta minberatuta itxi ebazan. Negar-musinga, albait ariñen aitari esan egioela agindu eutsen.

Andik ordu batzuetara etxeratu zan aita, ta orduko Teresek egindako gaiztakeri txikeñaren bañirik iñok ezeban. Baña ba-yoako bera Miren'eri ta diñotso: *Iñgia uratu dodana arin esan egion aitari.*

Eta Teresatxo erugea, urkamendiaren zain dagoan giza-erale bat lez, an egoan aitaren asañe-agirakak entzuteko gertu, autortu ezkerro ererago azketsiko eutsola buruan sartu yakon-eta.

Bere aitari eutson maitetasuna.—Teresatxok biotz-biotzez maite eban aita. «Aita etxera etofen bakotxean—berberak diñosku—aida baten bere bila urtenda, bere oski edo zapata baten gañean jarten nintzakion, eta onela etxe bañuan eta baratza-zear, neuk nai ala, erabilten ninduan».

«Beti neure naya egiten nebala esaten eutson amak, iribañe-ka; aitak, bañiz, onela: *Zer nai dozu, etxeako andregoya, eregiña da-ta!* Gero besoetan estutu, goi-goira jaso, sorbaldan jañi, mo-suak egin eta laztarez betetan ninduan».

Maitakeri oneik umetxoai oso atsegingafi yakiez, ta laster ezagutzen dabe, kaskañak izan añen, nok maite dabezan. Ta asko auxegaitik egiten dira beti gozoak eskuan eta ibili bear dabela uste dabenak, afoputzak, kaskariñak eta eztikoyak.

Teresatxori, ofaitiño, aita ta ama arduratsuak eukazan eta, etxakon olakorik jazo; maitatua zala ikusi añen, biotza etxakon afoputzu, ezta burua arindu be; beti izan zan zuzena.

Noz edo noz, griña-iritsok nañastuta, gaiztakeririk ba-egian, akiakuñu biña, bere burua zuritu guran etzan ibiliko, oker egin ebala-ta bat-batera apal parka eskatu baño.

Au Terese berberak zintzo edesten dauskun gertaera edo arteki onek ondo obeto darakusku.

Egun baten Teresatxok, Miren bere aiztea bedar bigunean jarrita begira eukon artean, zaburuan zibuka iñarduan; aita bere ondotik igarozan, eta, bere alaba kutuna zoragañero zibuka ikusirik dei egin eu-



erantzun lotsa bakoa entzunik, jaramonik be ezeitson geyago egin; bertan bera itxita andik uñindu zan, eta geruago Teresatxo'k berak iñoana-«ederto egin eban».

Miren'ek, betartea ilun, diñotza orduan: *Ume oñek, era bako oñek zer egin don? Aitari oñela erantzun?* «Esan oneik—Josu Umearen Terese'k diño—on egin eustien; zoritxañeko zaburu aretatik jatxita, damaturik, gañasika asi nintzan, etxe osoan entzuteko eran. Atxi-atxika zurgu-malok igon nebazan, oraingoan bañiz maña bakoñean *amatxo* ta *amatxo* diadarka jardun barik; aita idoro ta berari parka eskatutea baño eneban gura; egiteko au beingo baten egin neban». Begi negartsuz parka-eske etorkion alaba kutuna azketsi ez ostera?

tson: *Erdu, ene andregoi txikia, mosu bat emon egidan! Baña Terese'k, itz oneik entzun eta gusti be, txeñen (diabru) oñiak zirikatutu uñean, zirkiñik be ez eban egin gura izan; eta, arpegi zitelagaz, erantzun auxe emon eutsen: *Etoñi ona zeu, aita.**

Aitak, onen

Beste egun baten bere amagaz be bardin jaso yakon. Goiz baten oetik jagi ta bera jatxi baño len, Teresatxo'ri mosu bat emon gura izan eutsan. Begiratu te nasai-nasai lozofotan egoala uste izan eban, eta ezeban iratzañi gure izan, baña Miren be bertan egoan amagaz ta diñotso: *Ama, loak artua egiten dau, baña itxañik egon bayetz!*

Orduan, jakin-gureak kili-kili eginda, bekoki erdian laztan gozoa egiteařen, makurtu zan; baña beriala, sugelindarea ari artean baño bizkor, urduriago gañeko izara-ertzogaz burua estali ta, ume eregu-zale antzera, ots egin: *Iñok ikusi nayanik eztoz gura!*

Erremuskada onek asko mindu eban Zelia'n biotza, ta euren seme-alabak biotzez maite dabezan guraso gustiak lez, asafe egin eutson, eta gogor samar egin be. Gero andik alde egin eban.

Baña Teresatxo'ren biotza bigun samura zan. Gurasoak naigabetu ebazala ta ezin zan egon une baten be nasai. Iroiren edo miñutu bi baru, oetik bakar-bakarañik jagita, bera baño luzeago zan atofan baturik, maletan bera ortozik jatxi ta, ara amaren oñetan auspaz; arpegia negar-malkoz zurbil, esan eutson: *Amatxo, amatxo, dongea izan naz, parkatu egistazu.*

Eta amak alabatzoa beso artean artu, biotz gañean estutu ta mozuz bete eban. Gero, matraletako negar-arpuluak leunkiro legortu eutsozan.

SANTI, K. O.

(Jañaitzeko)

OLDOZKETAK

Bazkari aundia maite dauanak, txirotasuna zer dan saritxo jakingo dau: ardaoa ta janari aukeratuak maite dituana, nekez aberastuko da.

Bere aoa ta mingaña zaintzen dakiana, naigabe askotik azke dago.

Emondako berbia betetan ez dauana, euririk emoten ez dauan laño baltza langoa da.

Eskean dabilenari biotza gogortzen dautsonak, eskatzaile il ez dedin bildur izan bedi.

Zoro bat naiko da ari aundi bat ibaira botatzeko, sei jakintsu bear dira andik ateratzeko.